

Fontes

Linguae Vasconum

50 urte. Ekarpen berriak

euskararen ikerketari

Nuevas aportaciones al

estudio de la lengua vasca

Garaziko euskararen azterketa diafasikoa

ALEXANDER ARTZELUS MUXIKA

Argitaratzaileak / Editores

Ekaitz Santazilia

Dorota Krajewska

Eneko Zuloaga

Borja Ariztimuño



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

Garaziko euskararen azterketa diafasikoa

Diaphasic variation of Garazi Valley Basque

ALEXANDER ARTZELUS MUXIKA

Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU

alex_aitza@hotmail.com

JASOA: 2019/07/05 | BEHIN-BEHINEAN ONARTUA: 2019/07/30 | BEHIN BETIKO ONARTUA: 2019/12/13

Eskerrik beroenak Marie Agnes Gorostiagueri, emaniko laguntza guztiagatik.

Santazilia, E. *et al.* (arg./eds.), *Fontes Linguae Vasconum 50 urte*, pp. 63-79. or.
DOI: 10.35462/fontes50urte.4

LABURPENA

Garaziko hizkuntza-aldakortasun diafasikoa ikertzea da lan honen helburua, hiztun baten estilo informala eta formala alderatuz. Donibane Garaziko Irulegiko Irratian lanean ari den esatari bat izan dugu horretan lagun. Mintzo informala lortzeko, berarekin izandako lagun-giroko elkarrizketa baliatu dugu, eta mintzo formala lortzeko, berriz, irratiko jarduna aztertu dugu. Nazioartean, era honetako ikerketa andana egin da, mintzo formala lortzeko testuinguru naturala eta ikertzaileak bortxatu gabea eskaintzen baitu irratiak. Alta, ez dugu oraindik horrelako lanik euskarari dagokionez. Azterketa kualitatiboa eta kuantitatiboa uztartuko ditugu. Emaitzek frogatuko digutenez, estilo formalean, lekukoak forma osoen eta ahoskera zainduaren alde egingo du, eta Iparraldeko Batuaren eragina ere agertuko da.

ABSTRACT

The aim of this research is to analyze the diaphasic variation of Garazi Basque. For that purpose, we will compare the informal and formal speech of a radio speaker on the *Irulegiko Irratia* radio station located in Donibane Garazi. To obtain informal speech, we have had an informal conversation with the speaker. To capture formal speech, we have analyzed the speaker's radio talk. There is a lot of research about radio talk internationally, but none has been done about Basque. We will combine both qualitative and quantitative analysis. As the results will show, in formal style, the speaker opts for full forms and careful pronunciation. She also has some influences of the regiolect called *Iparraldeko Batua*.

Gako-hitzak: soziolinguistika; bariasionismoa; estiloa; Garazi; irratia.

Key words: sociolinguistics; variationism; style; Garazi; radio.

1. Sarrera

Estiloari ez zaio behar adinako tokirik eskaini soziolinguistikaren historian, baina, gaur egun, geroz eta leku garrantzitsuagoa du. Eckert eta Rickforden (2001, 1. or.) ustez, aldakortasun soziolinguistikaren barnean ezinbesteko lekua du, eta osagai nagusia da aldakortasun linguistiko eta sozialarekin batera. Euskarari erreparatzen badiogu, estiloari buruzko azterketak oraindik oso urriak direla ohartuko gara.

Irratsaioak estiloa, hizkuntza-aldakortasuna eta aldaketa aztertzeko iturri oso garrantzitsuak direla frogatu da (Hernández-Campoy & Jiménez-Cano, 2003, 321. or.); izan ere, hiztun baten mintzo formala aztertu nahi badugu, hori bere testuinguru naturalean aztertzea ahalbidetzen digu, ikertzailearen partetik inolako manipulaziorik egin gabe. Mintzo informala, berriz, erraz azter genezake, hiztun horrekin berarekin giro informaleko elkarrizketa izanez gero. Helburu hori lortzea nolabait oztopa dezake behatzailearen paradoxak (Labov, 1972, 209. or.). Hala ere, gure kasua den bezala, iker-tzaileak lekukoarekin laguntasun-harremana izateak arazo hori neurri batean gainditzen laguntzen duelakoan gaude.

Nazioartean, ugari izan dira irratia baliatuz estilo-aldaketa aztertzeko egin diren lanak; esaterako, Coupland (2001a), Bell (1977, 1982a, 1982b, 1984, 1991), Cutillas-Espinosa (2001, 2003), Hernández-Campoy eta Jiménez-Cano (2003) eta Cutillas-Espinosa eta Hernández-Campoy (2006, 2007). Alta, Euskal Herrian ez dugu era honetako lanik eginik.

Gainera, ezin dugu ahaztu Iparraldea usu leku ahaztua dela euskarari buruzko ikerketetan, gehiago oraindik soziolinguistikari eta bariasionismoari dagokionez. Beraz, egoera hori uzkaileteko beste ekarpen bat gehiago izan nahiko luke lan honek.

Lanaren hipotesia da esatariak Iparraldeko Batua deitzen hasi garen erregiolektora buruzko aldaketak egingo dituela estilo formalean¹, hots, irratiz mintzo denean. Estilo informalean, berriz, hots, elkarrizketa informalean, etxetik jaso duen euskarari dagozkion ezaugarriak nagusituko lirarteke, *base dialect* delakoari dagozkionak², hain

¹ Dialekto tradizionalen eta estandarren arteko konbergentziaren ondorioz sortutako aldaera supralokalei deitzen diegu *erregiolekto* (Auer, 1998, 2. or.).

² Bellmannen (1998, 23. or.) arabera, hau da *base dialect* edo oinarrizko dialektoaren definizioa: «a variety spoken in a restricted, usually rural local place, and differing from the overarching standard in a maximum number of linguistic features».

zuzen ere. Horrez gain, Iparraldeko Batua zer ezaugarrik definitzen duten zedarritzen saiatuko gara. Badirudi erregiolekto hau XIX. eta XX. mendeetan zehar garatzen joan den nafar-lapurteran oinarrituta dagoela, eta geroz eta eragin handiagoa izaten ari dela Iparralde osoko euskalaritzan. Kontzeptu hau geroz eta gehiago erabiltzen bada ere, guk dakigula deus gutxi idatzi da beraren izaerari eta zedarritzen duten ezaugarriari buruz.

Bellen printzipioaren arabera, estratifikazio sozialaren maila estratifikazio estilistikoarena baino handiagoa da, beraz, hiztunek hizkuntzaren erabileran dauden desberdintasun sozialen behaketatik eratortzen dituzte beren eredu estilistikoak (Labov, 2001, 86. or.). Hori dela eta, lan honetako emaitzak Artzelus (2019) lanekoekin konparatuko ditugu, aldakortasun sozialarekiko bat etortzeak eta aldeak ikusi eta Garaziko ibarreko aldakortasunari buruzko ideia osoagoa izateko.

2. Estiloa soziolinguistikan

Moorek (2011, 222. or.) Half Moon Bay Style Collective elkartearen estiloaren definizioa ematen digu: «a socially meaningful clustering of features within and across linguistic levels and modalities».

Bellen (2014, 294-297. or.) arabera, estilo-aldaketaren mikroikuspegi tradizionala minimalista da eta estiloa sinpleki bereganatutako hizkuntza-aldagaien multzo hertsia moduan ulertzen du. Aldagai horien aldaerak ongi definitutako hizkuntza-inguruneen arabera aldatzen dira, eta arrazoi estralinguistikoak direla medio, informalitateak formalitatera doan *continuumean* irregulari banatuta daude.


Estilo-aldaketaren makroikuspegi, berriz, linguistikoki eta sozialki maximalista da, aukera zabalekoa eta eklektikoa. Estiloa sorta linguistiko zabal batetik egiten den hautu proaktibotzat ulertzen da. Itxura fisikoa, janzkera, musika edo postura bezala, hizkuntza ere iturri semiotiko moduan ulertzen da. Estiloa erranahia eraikitze eta talde eta norbanako jakin batzuekiko lotura eta solidaritatea eta beste batzuekiko desberdintasuna azaltzeko baitezpadako osagaia da, hizkuntza-hautu jakin batek erranahi sinbolikoa baitakar berarekin (Bell, 2014, 295. or.).

2.1. Audientziaren diseinua

Bellek (1984) *audientziaren diseinua* izeneko teoria ondu zuen. Horretarako, oinarriak Gilesen (1973, 1980) egokitze linguistikoa eta Bakhtinen hiztunen eta entzuleen solas kooperatiboen prozesuak izan ziren. Teoria honek hiztunaren jarrera (hiztunak audientzia jakin baten beharren arabera mintzoa proaktiboki diseinatzen du) eta jarrera horren arrazoa (hiztunaren audientzia) hartzen ditu kontuan (Meyerhoff, 2006, 42. or.).

Laboven (1966) ereduak hiztun egozentrikoa hartzen zuen kontuan, faktore ez linguistikoek (egoerak) eskuarki baldintzatuta. Haatik, Bellen *audientziaren diseinuak* ekintza mintzatua fenomeno sozialtzat hartzen du. Hiztunak bertan aktiboki negoziatzen eta parte hartzen du, eta norbanakoaren eta taldearen identitateak aztertzen ditu (Hernández-Campoy, 2016, 115. or.).

Estilo-aldaketan, honako partaide hauek ditugu, garrantziaren arabera zerrendatuak: igorlea, hots, mintzaldian dagoen lehen parte hartzailea; ondoren, hiztuna zuzentzen zaion bigarren pertsona dugu, hartzailea; eta hirugarren pertsonak ere badute eragina estilo-aldaketan. Azken horien artean, lehenik eta behin, entzulea dugu, audientziako parte dena, eta elkarrizketako partaideek kontuan hartzen dutena, nahiz eta hiztuna berari zuzenean ez zuzendu; bigarrenik, zeharkako entzuleak ditugu, elkarrizketan presente daudenak, baina kideek ez dituzte hainbeste kontuan hartzen; azkenik, kuxkuxeroak ditugu. Azken horiek elkarrizketan era argian egon ez arren, hiztunak nolabait existitzen direla suposa dezake (Meyerhoff, 2006, 43. or.).



1. irudia. Estilo-aldaketako partaideak audientziaren diseinuaren arabera (Meyerhoff, 2006, 43. or.).

Hiztunak hirugarren pertsona hauek bigarren pertsona izango balira bezala kontuan hartzen dituenean (esaterako, diskurtso politikoetan edota aztergai dugun irratiko mintzaldian), epaile-diseinu edo *referee design* delakoari buruz jardungo ginateke (Bell, 1984, 186. or.). Bellen (1984, 160-161. or.) arabera, audientzia zenbat eta hurbilago egon igorlearengandik, orduan eta hizkuntza-aldakortasun handiagoa.

2.2. Hiztunaren diseinua

Yuren eta Vivieren (2015, 68-69. or.) arabera, teoria ugari ados daude identitatea sozialki eraikia dela baieztatzean. Norberak testuinguru historiko, politiko eta sozial zehatzetan, harremanetan eta roletan izandako esperientzietatik eratorria da. Negoziatua da, martxan dagoena eta denboran eta espazioan etengabe aldatzen doana (Wenger, 1998, 163. or.). Norbanakoak bere identitatea eraikitzean rol islatzailea eta produktiboa du (Ochs, 1993). Horren arabera, norberak identitate jakin bat har dezake egoera jakin batean eta beste bat beste batean. Cohenek (2000, 582. or.) dioen bezala, «bat musulmana izan liteke meskitan, asiarra kalean, asiar britainiarra kanpaina elektoraletan eta britainiarra kanpora bidaiatzera doanean, dena egun berean». Yuren eta Vivieren (2015,

69. or.) arabera, hizkuntzaren eta identitatearen arteko harremana urrun dago estatikoa izatetik, eta askotarikoa, konplexua eta testuinguru aldetik zehatza da.

Honetan guztian oinarrituta, hiztunaren diseinuak (Coupland, 2001b; Schilling-Estes, 2002) aldakortasun estilistikoa hiztunek beren identitate sozial, pertsonal eta interpersonala sortzeko eta proiektatzeko duten baliabideetatik ulertzen du. Identitate hori ez da estatikoa, baizik eta egitura sozialak modelatu eta birmodelatzeko modua da, baita horietan hiztunek beren burua kokatzea ere (Schilling-Estes, 2002, 389. or.).

Estiloa jada ez da hiztunek beren mintzoari eskainitako arreta, edo hartzailearen edota audientziaren ezaugarri sozialei eskainitakoa, ezta testuinguruari eskainitakoa ere. Estiloa hiztunak bere buruarentzat eta besteentzat esanguratsuak diren identitate soziala(k) eraikitze modua da (Meyerhoff, 2002, 534. or.).

2.3. Arau-diseinua

Cutillas-Espinosak eta Hernández-Campoyk (2007) Murtziako irratik lokal batean lanean ziharduen esatari baten mintzoa aztertu zuten. Egiten zituen irratsaioetako batean, entzuleen zuzeneko telefono-deiak jasotzen zituen. Ikerleek deitzen zuten jendearen mintzoa eta esatariak haiei zuzentzean zerabilena konparatu zituzten. Ondoren, esatariarekin elkarriketa informala izan zuten, eta testuinguru horretan esatariak erabili zuten mintzoari ere erreparatu zioten. Ez audientziaren diseinua, ez hiztunaren diseinua ez ziren baliagarri gertatu esatariak irratsaioan entzuleekin erakusten zuten estandarrerara buruzko joera azaltzeko. Alternatibatzat, *script design*, edo, euskaraz, *arau diseinua* izenda genezakeena proposatu zuten; hots, esatariak arau soziolinguistikoen eta hizkuntzarekiko jarreretan oinarrituriko aurrez ezarritako arau batzuen arabera moldatzen duela bere mintzoa.

3. Hizkuntza-ezaugarriak

Hizkuntza-ezaugarriak aukeratzeko, honako irizpideak hartu ditugu kontuan: batetik, Trudgill (1974) erranahi sozialaren maila, eta hizkuntza-desberdintasunaren maila. Bestetik, Laboven (1972) maiztasun handia izatea, egituratua izatea, hots, hizkuntza-sistema orokorragoaren parte integral eta zentrala izatea, eta estratifikazio sozial handia izatea. Hauek dira lanean zehar aztertu ditugun hizkuntza-aldagaiak arloz arlo:

Arlo fonikoa:

- (1) Hasperena hitz hasieran.
- (2) Hasperena bokal artean.
- (3) Herskari hasperendunak.
- (4) Dardarkariak (apikari edo ubular).
- (5) [u] → <i>/_[a,e] bilakabidea (*gatusa* → *gatusia*).
- (6) [i]-ren gainean eraikitako goranzko diptongoak: [i] → <j>/_[a,e,o,u] (*egitua* → *egitjua*).
- (7) [e]-ren gainean eraikitako goranzko diptongoak: [e] → <i,e,j>/_[a] (*etxea* → *etx[e]a*, *etx[j]a*, edota *etx[i]a*).

- (8) [o]-ren gainean eraikitako diptongoak: [o] → <ø,u,w>/_[a] (*ots[o]a* → *ots[ø]a*, *ots[w]a*, *ots[u]a*).
- (9) eta (10) (t) eta (d) aldagaiak (apikariak edo frantsesaren eraginez emendatzen ari diren aldaera lepokariak) (*be[t̪]i* vs *be[t̪̥]i*, [*d̪*]ira vs [*d̪̥*]ira)³.
- (11) [β] → <Ø>/V_V bilakabidea (*gauza[β]at* → *gauzaat*).
- (12) [ð] → <Ø>/V_V bilakabidea (*ina[ð]ut* → *inaut*).
- (13) [ɣ] → <Ø>/V_V bilakabidea (*e[ɣ]unaz* → *eunaz*).
- (14) [r] → <Ø>/V_V (*e[r]akutsi* → *eakutsi*).
- (15) Aferesia (*ekarri* → *karri*).
- (16) [o] → [u]/_[n] bilakabidea (*hontan* → *huntan*).

Morfonologia:

- (17) Jabego genitiboa (*gizonaren* → *gizonain*, *gizonaen*, *gizonan*).
- (18) *-anez* amaitutako aditzen gainean eraikitako etorkizuneko formak (*izanen* → *izain*).
- (19) *-[t]ik* (ablatiboa) → *-[d]ik/[n]_ ez gertatzea* (*hementik* vs *hemendik*).
- (20) **eradun* erroaren gainean eraikitako aditz ditransitiboetako datiboaren 1. pertsonako morfemari dagokion lehen kontsonantea ahostun edo ahoskabea izatea (*da(d)azu* vs *dautazu*).
- (21) *a/auren* gainean eraikitako datibodun aditz iragangaitzetako datiboaren 1. pertsonako morfemari dagokion lehen kontsonantea ahostun edo ahoskabea izatea (*za(d)an* vs *zautan*).

Izenaren morfologia:

- (22) odun aldaerak edo edunak *zoin* vs *zein*, *zonbat* vs *zenbat*, *zonbait* vs *zenbait* hitzetan.
- (23) Adlatiboa (*etxerat* vs *etxera*).
- (24) Soziatiboa (*emaztearekin* vs *emaztearekilaran*).
- (25) Destinatiboa (*gizonarendako* vs *gizonarentzat*).
- (26) Datibo plurala (*haurrer* vs *haurreri* vs *haurrei*).
- (27) Ablatibo plurala (*herrietarik* vs *herrietatik*).

Aditzaren morfologia:

- (28) **eradun* erroa vs **i* erroa aditz ditransitiboetan (*dakot* vs *diot*).
- (29) *a/au* vs *airen* gainean eraikitako datibodun aditz iragangaitzak (*zat/zaut* vs *zait*).
- (30) *an* (aditzoina) + *ten* → *aiten* (*emaiten* vs *ematen*).
- (31) *TO Gen* fenomenoa (*etxe baten iteko sos aniz behar da* vs *etxe bat iteko aniz sos behar da*).

³ Ezaugarri honi buruzko informazio gehiagorako, ik. Artzelus (2019, 159-160. or.).

4. Metodologia

Irulegiko Irratia da lan hau gauzatzeko hautatu dugun komunikabidea. Ibar osoan ez ezik, Nafarroa Behere osoan entzunenetakoa den irratia da, eta oihartzun ikaragarria du eguneroko bizitzan. Euskara hutsean dihardu, eta beraz, berebiziko garrantzia du ibarreko euskara biziberritzeko zereginen. Gaur egun, Iparraldean euskaraz ari diren Xiberoko Botza, Gure Irratia eta Antxeta Irratiarekin batera, Euskal Irratiak sarearen parte da. Ordu jakin batzuetan bere kontu ari da Irulegiko Irratia, baina ordurik gehienetan irrati guztiek ber programazioa dute. Egoitza Donibane Garazin du. Bertan lanean diharduen esatari baten mintzoa izan dugu lan honetan aztergai. Euskal Irratien programazio komunaren barruan, *On daizielako* magazinaz arduratzen da astelehenetik larunbatera, eta Irulegiko Irratiari dagozkion orduen barruan ere, abisuak, herrietako berriak, aroa eta zenbait elkarrizketa ere egiten ditu.

Lan honetan, mintzo formala aztertzeko, *On daizielako* lau saio eta Irulegiko Irratiari dagozkion orduetako beste hiru hartu dira kontuan. Arlo fonikoaren barruko hizkuntza-ezaugarrien azterketarako, ordea, *On daizielako* bi saio izan dira kontuan hartu ditugunak. Mintzo informala aztertzeko, aldiz, ikertzaileak elkarrizketa informala izan du esatariarekin. Biek laguntasun harremana izateak eta hizketa gaia hasieran librea izateak erraztu egin du mintzo *vernaculara* lortzea. Behin giro informala erdietsi delarik, azterketa kualitatiboa egiteko baliaitu ditugun galderak pausatu dizkiogu (ik. eranskina). Grabaketak ZTEBLADEA511 markako mugikorrarekin egin ziren *.wav* formatuan.

Ondoren, datuak anotatzeko, etiketatzeko eta transkribatzeko *Praat* programa erabili dugu (Boersma & Weenink, 2019). Jarraian, *list* aukeraren bidez, datu guztiak lortu eta *Excel* programan datu-basea eratu dugu. Azkenik, SPSS programa erabili dugu χ^2 proba egin eta aurrez aurreko eta irratiko mintzoen datuen artean dauden aldeak estatistikoki esanguratsuak diren edo ez ikusteko. Emaitza 0,05 baino txikiagoa bada, aldea esanguratsua dela ondoriozta genezake, eta handiagoa bada, berriz, hala ez dela.

5. Datuen azterketa kuantitatiboa

Jarraian, azterketa kuantitatiboari helduko diogu. Leku-arazoak direla eta, estatistiko ki esanguratsuak diren hizkuntza-ezaugarrietako datuak baino ez ditugu aurkeztuko.

5.1. (5) aldagaia ([u] → <i> / _[a, e])

Aldeak esanguratsuak dira χ^2 probaren arabera ($\chi^2 =$ (a.m.: 1) 46,974; $p = 0,000$).

1. taula. (5) aldagaia gauzatzearen eta ez gauzatzearen kopuru eta ehunekoak

Estiloa	Bai		Ez		Orotara	
	Kop.	Ehun.	Kop.	Ehun.	Kop.	Ehun.
Aurrez aurrekoa	80	% 93,02	6	% 6,98	86	% 100
Irratian	19	% 38,78	30	% 61,22	49	% 100

5.2. (6) aldagaia ([i] → <j> / _[a, e, o, u])

Aldeak esanguratsuak dira χ^2 probaren arabera ($\chi^2 =$ (a.m.: 1) 17,706; $p = 0,000$).

2. taula. (6) aldagaia gauzatzearen eta ez gauzatzearen kopuru eta ehunekoak

Estiloa	Bai		Ez		Orotara	
	Kop.	Ehun.	Kop.	Ehun.	Kop.	Ehun.
Aurrez aurrekoa	98	% 82,35	21	% 17,65	119	% 100
Irratian	77	% 57,89	56	% 42,11	133	% 100

5.3. (7) aldagaia ([e] → <i, ɛ, j> / _[a])

Aldeak esanguratsuak dira χ^2 probaren arabera ($\chi^2 =$ (a.m.: 3) 15,527; $p = 0,001$).

3. taula. (7) aldagaia gauzatzearen eta ez gauzatzearen kopuru eta ehunekoak

Estiloa	e		i		ɛ		j		Orot.	
	Kop.	Ehun.	Kop.	Ehun.	Kop.	Ehun.	Kop.	Ehun.	Kop.	Ehun.
Aurrez aurrekoa	4	% 8,33	10	% 20,83	8	% 16,67	26	% 54,17	48	% 100
Irratian	13	% 39,39	8	% 24,24	6	% 18,18	6	% 18,18	33	% 100

5.4. (8) aldagaia ([o] → <ɔ, u, w> / _[a])

Aldeak estatistikoki esanguratsuak dira χ^2 probaren arabera ($\chi^2 =$ (a.m.: 1) 12,343; $p = 0,000$).

4. taula. (8) aldagaia gauzatzearen eta ez gauzatzearen kopuru eta ehunekoak

Estiloa	o		u		ɔ		w		Orot.	
	Kop.	Ehun.	Kop.	Ehun.	Kop.	Ehun.	Kop.	Ehun.	Kop.	Ehun.
Aurrez aurrekoa	2	% 6,90	0	% 0	27	% 93,10	0	% 0	29	% 100
Irratian	20	% 45,45	0	% 0	24	% 54,55	0	% 0	44	% 100

5.5. (9) aldagaia ((t) aldagaia)

Aldeak estatistikoki esanguratsuak dira χ^2 probaren arabera ($\chi^2 =$ (a.m.: 1) 13,209; $p = 0,000$).

5. taula. (9) aldagaiaren aldaera apikari eta lepokariaren kopuru eta ehunekoak

Estiloa	Apikari		Lepokari		Orotara	
	Kop.	Ehun.	Kop.	Ehun.	Kop.	Ehun.
Aurrez aurrekoa	58	% 74,36	20	% 25,64	78	% 100
Irratian	43	% 100	0	% 0	43	% 100

5.6. (12) aldagaia ([ð] → <Ø>/V_V)

Aldeak estatistikoki esanguratsuak dira χ^2 probaren arabera ($\chi^2 =$ (a.m.: 1) 4,373; $p = 0,037$).

6. taula. (12) aldagaia gauzatzearen eta ez gauzatzearen kopuru eta ehunekoak

Estiloa	Bai		Ez		Orotara	
	Kop.	Ehun.	Kop.	Ehun.	Kop.	Ehun.
Aurrez aurrekoa	30	% 66,67	15	% 33,33	45	% 100
Irratian	4	% 33,33	8	% 66,67	12	% 100

5.7. (13) aldagaia ([ɣ] → <Ø>/V_V)

Aldeak estatistikoki esanguratsuak dira χ^2 probaren arabera ($\chi^2 =$ (a.m.: 1) 8,168; $p = 0,004$).

7. taula. (13) aldagaia gauzatzearen eta ez gauzatzearen kopuru eta ehunekoak

Estiloa	Bai		Ez		Orotara	
	Kop.	Ehun.	Kop.	Ehun.	Kop.	Ehun.
Aurrez aurrekoa	35	% 52,24	32	% 47,76	67	% 100
Irratian	14	% 26,42	39	% 73,58	53	% 100

5.8. (14) aldagaia ([r] → <Ø>/V_V)

Aldeak estatistikoki esanguratsuak dira χ^2 probaren arabera ($\chi^2 =$ (a.m.: 1) 11,915; $p = 0,001$).

8. taula. (14) aldagaia gauzatzearen eta ez gauzatzearen kopuru eta ehunekoak

Estiloa	Bai		Ez		Orotara	
	Kop.	Ehun.	Kop.	Ehun.	Kop.	Ehun.
Aurrez aurrekoa	101	% 58,72	71	% 41,28	172	% 100
Irratian	27	% 35,06	50	% 64,94	77	% 100

5.9. (15) aldagaia (aferesia)

Aldeak estatistikoki esanguratsuak dira χ^2 probaren arabera ($\chi^2 =$ (a.m.: 1) 5,321; $p = 0,021$).

9. taula. (15) aldagaia gauzatzearen eta ez gauzatzearen kopuru eta ehunekoak

Estiloa	Bai		Ez		Orotara	
	Kop.	Ehun.	Kop.	Ehun.	Kop.	Ehun.
Aurrez aurrekoa	18	% 22,22	63	% 72,84	81	% 100

Estiloa	Bai		Ez		Orotara	
	Kop.	Ehun.	Kop.	Ehun.	Kop.	Ehun.
Irratian	2	% 5,26	36	% 94,74	38	% 100

5.10. (17) aldagaia (jabego-genitiboa)

Aldeak estatistikoki esanguratsuak dira χ^2 probaren arabera ($\chi^2 =$ (a.m.: 2) 46,348; $p = 0,000$).

10. taula. (17) aldagaiari dagozkion aldaeren kopuru eta ehunekoak

Estiloa	<i>-ain</i>		<i>-aen</i>		<i>-an</i>		<i>-aren</i>		Orot.	
	Kop.	Ehun.	Kop.	Ehun.	Kop.	Ehun.	Kop.	Ehun.	Kop.	Ehun.
Aurrez aurrekoa	37	% 50,68	5	% 6,85	0	% 0	31	% 42,47	73	% 100
Irratian	9	% 9,38	0	% 0	0	% 0	87	% 90,63	96	% 100

5.11. (18) aldagaia (*-anez* amaitutako aditzen gainean eraikitako etorkizuneko formak)

χ^2 probaren arabera ($\chi^2 =$ (a.m.: 1) 2,231; $p = 0,135$) aldeak estatistikoki esanguratsuak ez badira ere, interesgarria iruditu zaigu (18) aldagaiari dagozkion aldaeren kopuru eta ehunekoak 11. taulan erakustea.

11. taula. (18) aldagaiari dagozkion aldaeren kopuru eta ehunekoak

Estiloa	<i>-ain</i>		<i>-anen</i>		Orotara	
	Kop.	Ehun.	Kop.	Ehun.	Kop.	Ehun.
Aurrez aurrekoa	18	% 78,26	5	% 21,74	23	% 100
Irratian	34	% 60,71	22	% 39,29	56	% 100

5.12. (20) aldagaia (**eradun* erroko aditzetan ahostun vs ahoskabe)

Aldeak estatistikoki esanguratsuak dira χ^2 probaren arabera ($\chi^2 =$ (a.m.: 1) 32,737; $p = 0,000$).

12. taula. (20) aldagaiari dagozkion aldaeren kopuru eta ehunekoak

Estiloa	Ahostun		Ahoskabe		Orotara	
	Kop.	Ehun.	Kop.	Ehun.	Kop.	Ehun.
Aurrez aurrekoa	12	% 80	3	% 20	15	% 100
Irratian	0	% 0	30	% 100	30	% 100

5.13. (21) aldagaia (a/auren gainean eraikitako datibodun aditz iragangaitzetan ahostun vs ahoskabe)

Aldeak estatistikoki esanguratsuak dira χ^2 probaren arabera ($\chi^2 = (a.m.: 1) 28,062$; $p = 0,000$).

13. taula. (21) aldagaiari dagozkion aldaeren kopuru eta ehunekoak

Estiloa	Ahostun		Ahoskabe		Orotara	
	Kop.	Ehun.	Kop.	Ehun.	Kop.	Ehun.
Aurrez aurrekoa	20	% 95	1	% 5	20	% 100
Irratian	0	% 0	12	% 100	12	% 100

5.14. (25) aldagaia (destinatiboa)

Aldeak esanguratsuak dira estatistikoki χ^2 probaren arabera ($\chi^2 = (a.m.: 1) 13,530$; $p = 0,000$).

14. taula. (25) aldagaiari dagozkion aldaeren kopuru eta ehunekoak

Estiloa	-rendako		-rentzat		Orotara	
	Kop.	Ehun.	Kop.	Ehun.	Kop.	Ehun.
Aurrez aurrekoa	26	% 92,86	2	% 7,14	28	% 100
Irratian	9	% 45	11	% 55	20	% 100

5.15. (26) aldagaia (datibo plurala)

Interesgarri deritzogu (26) aldagaiari dagozkion aldaeren kopuru eta ehunekoak 15. taulan erakusteari, nahiz eta aldeak ez diren estatistikoki esanguratsu χ^2 probaren arabera ($\chi^2 = (a.m.: 1) 1,688$; $p = 0,194$).

15. taula. (26) aldagaiari dagozkion aldaeren kopuru eta ehunekoak

Estiloa	-er		-eri		-ei		Orotara	
	Kop.	Ehun.	Kop.	Ehun.	Kop.	Ehun.	Kop.	Ehun.
Aurrez aurrekoa	7	% 58,33	5	% 41,67	0	% 0	12	% 100
Irratian	5	% 33,33	10	% 66,67	0	% 0	15	% 100

6. Ondorioak

Arlo fonikoa eta morfonologia dira gehien aldatzen diren hizkuntzako arloak, eta horrek erran nahiko luke, hiztunak irratitari dagokion testuinguru formalean, hitzen forma osoak ahoskatzeari garrantzia ematen diola, ahalik eta hotsik gutxien ezabatuz edota aldatuz, eta gisa horretan, ulermena erraztuz. Hasperenaren eta dardarkarien kasuan, hiztunak ez du aldakortasunik erakusten. Lehenaren kasuan, badirudi hasperenak ez duela ulermena edo argitasuna handitzeko funtziorik, ez baita estilo formalean haren erabilera areagotzen. Bigarrenaren kasuan, berriz, hiztunak fonema ubularra ia erabat nagusitua du bere inbentarioan.

Izenaren eta aditzaren morfologia dira gutxien aldatzen diren hizkuntzaren esparruak. Hauexek dira *base dialectaren* izaerari hobekien eusten diotenak. Hala ere, arlo hauetan, lapurteraren edo/eta erdialdeko hizkeren eragina nabari da testuinguru formalean. Hala erakusten digu (25) aldagaiak, *-rentzat* nagusitzen baita irratiko mintzoan, eta baita (26) aldagaiak ere, nahiz eta aldeak estatistikoki ez izan esanguratsu, *-eri* formaren aldeko hautua egiten baitu esatariak.

Azterketa kualitatiboan jaso ahal izan ditugun iritziak aztertuta (ik. eranskina), irratiko jardunari dagokionez, behin eta berriz ageri da lekukoaren etxeko euskara gordetzeko nahia, baina, era berean, baita publiko zabalari erraz ulertzeko moduan mintzatzeko beharra ere. Azterketa kualitatiboko iritziek bat egiten dute azterketa kuantitatiboko emaitzekin, hiztunak, testuinguru formalean, kasu batzuetan, ezaugarri lokalen alde egiten baitu, baina baita erdialdekoagoak direnen alde ere.

Audientziaren diseinuak azalpen interesgarriak eskaintzen dizkigu lortu ditugun emaitzak interpretatzerako orduan. Erran berri dugun bezala, alderdi fonikoan aurkienezakeen aldakortasunak, testuinguru formalean, entzuleek mezua ongi uler dezaten esatariak sentitzen duen beharra agerian uzten du. Garazi baino haratago doan publiko zabalari zuzentzeko nahi eta beharra salatzen du, halaber, *levelling* edo berdintzeak, hots, ezaugarri lokalenak baztertzeak, orokorragoak direnen alde eginaz (Auer & Hinskens, 1996, 9. or.). Horrela gertatzen da (5), (25) eta (26) aldagaien kasuan. Iparralde osoko hedadura duten ezaugarriek ez dute aldakortasunik erakusten; errate batera, (16), (23) eta (31) aldagaiek.

Hiztunaren diseinuak ere hainbat ezaugarritan ukan ditugun emaitzak azaltzeko balio digu. Hiztuna etxeko euskara gordetzearen aldeko ageri da, eta horren erakusgarri da hedadura eremu aski murrizta duten ezaugarri batzuetan aldakortasun gutxi edo batere ez agertzea, hala nola, (19) eta (29) aldagaien kasuan.

Beste ezaugarri batzuei dagokienez, berriz, zalantza dugu hiztuna etxeko euskara gorde nahian ari ote den, edo Iparraldeko Batuaren ezaugarriak erabiltzen ari den. Errate batera, hedadura zabala dute iparraldean (22) aldagaiaren odun aldaerek *zoin*, *zonbat*, *zonbait* hitzetan, edota (30) aldagaiak, baina ez dira Lapurdiko kostan erabili izan, orain arte, bederen. Iparraldeko Batuaren izaeraren inguruko ikerketa gehiago behar genituzke, ipar-ekialde zabalekoak diren ezaugarri hauek belaunaldi berriengan Lapurdiko mendebaldean hedatzen ari diren, eta beraz, sortzen ari den erregioleko honen parte bihurtzen ari diren jakiteko. Era berean, lapurteraz baino erabilia ez den

-eri datibo pluralaren forma Garaziko hitzun baten mintzo formalean agertzeak ere ikerketa horien beharra azpimarratzen du, jakin dezagun lapurterak zenbaterainoko eragina duen garatzen ari den Iparraldeko Batu horretan.

Arau diseinuak ez digu kasu honetan argibide askorik eskaintzen, hitzunak berak azpimarratu bezala, Euskal Irratietako esatariei ez baitiete inongo momentutan nola mintzatu behar duten agintzen, eta aukera bakoitzarena baita.

Puntu bat egin nahi genuke (20) eta (21) aldagaiei buruz. Aurrez aurreko mintzoan hots ahostuna da nagusi, eta irratikoan, berriz, ahoskabea. Horren azalpenak hitzunak erabiltzen duen tratamendurekin du lotura. Hain zuzen ere, xukako tratamenduan, kontsonante ahostunak gramatikalizaturik ditu hitzunak, eta eztabadako tratamenduan edo neutroan, berriz, Garazin, belaunaldi gazteetan zabaltzen ari diren kontsonante ahoskabeak sartuak ditu, bai estilo formalean eta baita informalean ere. Aurrez aurreko elkarrizketan xuka mintzo da hitzuna, eta irratian, aldiz, eztabadaka. Horregatik dira bi estiloen arteko aldeak hain esanguratsu.

Artzelus (2019) lanean arlo fonikoko lehen hamar hizkuntza-ezaugarrien geografiaren, adinaren eta generoaren araberako aldakortasuna ikertu genuen. (5), (6), (7) eta (8) aldagaiei dagokienez, aldakortasun estilistikoak sozialari jarraitzen dio, espero bezala, baina ez da hala gertatzen hasperenaren eta dardarkarien kasuan, erran bezala, hitzunak fonema jakin batzuen erabilera finkatua baitu bere inbentario fonologikoan. Harrigarria zaigu, bestalde, emakumeen eta gazteen artean nagusitzen ari den (9) aldagaiaren aldaera lepokaria ia erabat desagertzen dela testuinguru informaletik formalera, esperoko genukeenaren kontra. Bi azalpen posible otu zaizkigu: bata, hitzunak kontzienteki frantsesaren eragina solas formalean ezabatu nahi izatea, hots, ezaugarria markatzailea izatea⁴, eta bigarrena, hitzunak ezaugarria inkontzienteki mintzo informal, erlaxatu eta lagun artekoarekin lotzea, hau da, indikatzailea izatea⁵.

Aurrera begira, lehenik eta behin, aipatu berri dugun bezala, Iparraldeko Batuari buruzko ikerketa gehiagoren beharra ikusten dugu, eta bestetik, aztertu ditugun hizkuntza-ezaugarri guztien aldakortasun soziala aztertu beharra ere ezinbestekoa dela deritzogu, Bellen printzipioari jarraikiz, aldakortasun sozialaren ostetik baitator aldakortasun estilistikoa, eta beraz, lan honen emaitzak hobeki interpretatzeko baitezpadakoa litzateke.

⁴ Markatzaileak hizkuntza-komunitatearen ezaugarri dira, eta, beraz, kide guztiengan aurki litezke. Markatzaileak modu erregular eta estratifikatuan agertzen dira, bai sozialki eta baita estilistikoki ere, eta hitzunek horienganako jarrera berdintsuak izan ohi dituzte (Moreno-Fernández, 2009 [1998], 79-80. or.).

⁵ Indikatzaileak komunitate bateko talde sozialen arabera banatutako hizkuntza-aldagaiak dira. Aldagai horren aldaerak modu inkontzientean erabiltzen dira, eta beti ber testuinguruetan. Normalean, horiek ez daude aldaketa prozesuan eta ez dute esanahi sozial berezirik (Moreno-Fernández, 2009 [1998], 79-80. or.).

Erreferentziak

- Artzelus, A. (2019). Garaziko hizkuntza-aldakortasuna geografiaren, adinaren eta generoaren arabera. *FLV*, 127, 153-188.
- Auer, P. (1998). Dialect levelling and standard varieties in Europe. *Folia Linguistica*, 32(1-2), 1-10.
- Auer, P. & Hinskens, F. (1996). The convergence and divergence of dialects in Europe. New and not so new developments in an old area. *Sociolinguistica*, 10, 1-30.
- Bell, A. (1977). *The language of radio news in Auckland. A sociolinguistic study of style, audience and subediting variation* (doktore-tesia). Aucklandgo Unibertsitatea, Auckland.
- Bell, A. (1982a). Radio: the style of news language. *Journal of Communication*, 32, 150-164.
- Bell, A. (1982b). This isn't the BBC: colonialism in New Zealand English. *Applied Linguistics*, 3, 246-258.
- Bell, A. (1984). Language style as Audience Design. *Language in Society*, 13, 145-204.
- Bell, A. (1991). *The language of the news media*. Oxford: Blackwell.
- Bell, A. (2014). *The guidebook to sociolinguistics*. Oxford: Wiley-Blackwell.
- Bellmann, G. (1998). Between base dialect and standard language. *Folia Linguistica*, 32(1-2), 23-34,
- Boersma, P. & Weenink, D. (2019). Praat: doing phonetics by computer (5.1.) [software]. <http://www.praat.org> helbidetik eskuratua.
- Cohen, R. (2000). The incredible vagueness of being British/English. *International Affairs*, 76, 575-582.
- Coupland, N. (2001a). Dialect stylization in radio talk. *Language in Society*, 30(3), 345-375.
- Coupland, N. (2001b). Language, situation and the relational self: Theorising dialect-style in sociolinguistics. In P. Eckert & J. Rickford (arg.), *Style and sociolinguistic variation* (185-210. or.). Cambridge: Cambridge University Press.
- Cutillas-Espinosa, J. A. (2001). Variación sociolingüística: Evolución de los roles de género en Fortuna (Murcia). In I. de la Cruz, C. Santamaría, C. Tejedor & C. Valero (arg.), *La lingüística aplicada a finales del siglo XX. Ensayos y propuestas* (II, 685-692. or.). Alcalá de Henares: Universidad de Henares.
- Cutillas-Espinosa, J. A. (2003). Variación estilística en los medios de comunicación: una aproximación contrastiva a la teoría del diseño de la audiencia. *Tonos Digital*, 5, 1-15. <http://hdl.handle.net/10201/50789> helbidetik eskuratua.
- Cutillas-Espinosa, J. A. & Hernández-Campoy, J. M. (2006). Nonresponsive performance in radio broadcasting: A case study. *Language Variation and Change*, 18, 317-330.
- Cutillas-Espinosa, J. A. & Hernández-Campoy, J. M. (2007). Script design in the media:

- Radio talk norms behind a professional voice. *Language and Communication*, 27, 127-152.
- Eckert, P. & Rickford, J. (arg.). (2001). *Style and sociolinguistic variation*. Cambridge: Cambridge University Press.
- Giles, H. (1973). Accent mobility: a model and some data. *Anthropological Linguistics*, 15, 87-105.
- Giles, H. (1980). Accommodation theory: some new directions. *York Papers in Linguistics*, 9, 105-136.
- Hernández-Campoy, J. M. (2016). *Sociolinguistic styles*. Oxford: John Wiley & Sons.
- Hernández-Campoy, J. M. & Jiménez-Cano, J. M. (2003). Broadcasting standardisation: an analysis of the linguistic normalisation process in Murcia. *Journal of Sociolinguistics*, 7(3), 321-347.
- Labov, W. (1966). *The social stratification of English in New York City*. Washington D. C.: Center for Applied Linguistics.
- Labov, W. (1972). *Sociolinguistic patterns*. Philadelphia: University of Pennsylvania Press.
- Labov, W. (2001). The anatomy of style-shifting. In P. Eckert & J. Rickford (arg.), *Style and sociolinguistic variation* (85-108. or.). Cambridge: Cambridge University Press.
- Meyerhoff, M. (2002). Communities of practice. In J. K. Chambers, P. Trudgill & N. Schilling-Estes (arg.), *The handbook of language variation and change* (526-548. or.). Oxford: Blackwell.
- Meyerhoff, M. (2006). *Introducing sociolinguistics*. Londres: Routledge.
- Moore, E. (2011). Variation and identity. In W. Maguire & A. McMahon (arg.), *Analysing variation in English* (219-236. or.). Cambridge: Cambridge University Press.
- Moreno-Fernández, F. (2009) [1998]. *Principios de sociolingüística y sociología del lenguaje*. Barcelona: Ariel.
- Ochs, E. (1993). Constructing social identity: a language socialization perspective. *Research on Language and Social Interaction*, 26(3), 287-306.
- Schilling-Estes, N. (2002). Investigating stylistic variation. In J. K. Chambers, P. Trudgill & N. Schilling-Estes (arg.), *The handbook of language variation and change* (375-401. or.). Oxford: Blackwell.
- Trudgill, P. (1974). *The social differentiation of English in Norwich*. Cambridge: Cambridge University Press.
- Wenger, E. (1998). *Communities of practice*. Cambridge: Cambridge University Press.
- Yu, K. & Vivier, E. (2015). Speaking or being Chinese: the case of South African-born Chinese. *International Journal of the Sociology of Language*, 236, 55-73.

Eranskina

Datuen azterketa kualitatiboa

Azterketa kualitatiboari dagokionez, ondorengo lerroetan esatariari pausatua izan zaizkion galderak ditugu beltzez, eta erantzunak azpian.

Agindua zaizue irratian erabiltzen duzuen euskara nolakoa izan behar den?

Erreferentziatzat batua dugu. Hitz bat bilatu behar dugunean *Euskaltzaindiaren hiztegia* edo *Nola Erran* webgunekoa erabiltzen ditugu. Hala ere, inork ez digu debekatzen Nafarroa Behereko euskalkian hitz egitea. Era berean, inork ez gaitu batuaz hitz egitera behartzen, baina esatari gehienak baturantz lerratzen dira.

Zer iruditzen zaizu esatarien artean batuak geroz eta presentzia handiagoa izatea?

Euskalkiak maite ditut eta pena dut batuaren izenean euskalkiak alde batera uzten direlako. Euskalkiak eta Batua biak indartu behar dira, euskalkien galera saihesten dadin. Lehenik euskalkiak ikasi behar dira eta poliki-poliki baturanzko bidea egin. Batuak badu bere funtzioa, hain zuzen ere, hainbat lekutako jendeak elkar ulertzea. Hala ere, ardurara, erabilia den batua pobrea iruditzen zait. Ikastolek euskalkia erakusteko eginbeharra bere gain hartu beharko lukete.

Zer presentzia beharko luke Garaziko euskarak Irulegiko Irratian eta Euskal Irratietan?

Nik nihauren oreka atzema dut. Irulegiko Irratia ez da Garazikoa bakarrik, beraz, Garaziko euskarak bere lekua behar du, baina ez ondoko ibarretakoa baino handiagoa.

Nola atzeman duzu zuk zure oreka?

Naturalki. Zaila izan da batzuetan, deiak ukan baitituz, irratian artetan *xuka* erabiltzen dudala kritikatu, Baigorri aldetik bereziki. Ber gauza gertatu zait toka eta noka erabiltzen hasi naizelarik.

Zein dira zure ustez Garaziko euskararen berezitasunak?

Bereziki, xukako tratamendua, eta baita toka eta nokakoa ere. Hiztegia ere bai.

Batua hemengo hitzekin osatzea aipatu duzu. Aditzen kasuan, nongoak erabiltze dituzu?

Egin ahala etxeko euskara erabiltzera entseatzen naiz, atxikia naiz. Azkenetarik naiz etxeko euskara irratian erabiltzen. Hala ere, batua errazki sartzen dut eta gustukoa dut batuaz aritzea. Gipuzkoar edo bizkaitar batekin elkarrizketa bat egiten badut, batu gehiago sartzen dut. Kamaleoia naiz eta ahal dudana bezala egokitzen saiatzen naiz.

Zer iruditzen zaizu Iparraldeko batua edo nafar lapurtera?

Hor nonbait naiz ni ere irratian ari naizelarik. Garai batez gehiago erabili izan dut. Geroz eta gehiago noa euskalkietarat buruz azkenaldian. Ez naiz biziki identifikatzen Iparraldeko Batua horrekin. Ongi iruditzen zait batuko hitz batzuk hartzea, baina gure euskara asko pobretu du, oro har. Frantsesez pentsatutako euskara dela iruditzen zait. Ez naiz ausartzen iritzi jakin bat ematera, nik ere erabiltzen dudala iruditzen baitzait. Ez dut ongi identifikatzen, gure gazteek erabiltzen duten euskara hori da beharbada?

Aurkibidea / Índice

- 11 Aitzinsolasa
- 13 Prólogo
- 15 Testu-corpusen informazio morfosintaktikoaren etiketatze automatikoa
hizkuntz ezagutzan oinarrituz: zenbait arazo, hainbat erronka
ITZIAR ADURIZ, JOSE MARI ARRIOLA
- 31 Bertsolaritzaren genealogia subalternoak
LUZIA ALBERRO, K. JOSU BIJUESCA
- 47 Euskal hiztun berri gazteak muda-prozesuan: ekintza-ikerketa baten
behinbehineko emaitzak
ESTIBALIZ AMORRORTU, ANE ORTEGA, JONE GOIRIGOLZARRI
- 63 Garaziko euskararen azterketa diafasikoa
ALEXANDER ARTZELUS MUXIKA
- 81 Berridazketak Sarrionandiaren poesian eta Saizarbitoriaren *Egunero hasten
delako* nobelan: hurbilpen genetiko bat
MIKEL AYERBE SUDUPE
- 95 Somorrostro, mendebaldeko euskararen muga
GOIO BAÑALES, MIKEL GORROTXATEGI
- 113 Euskara sasoian? Euskararen sozializazioa Gasteizko
pilota-elkarte batean
IÑIGO BEITIA
- 127 Euskal hiztun natiboak, ez-natiboak eta hitanoa
GARBIÑE BEREZIARTUA ETXEBERRIA, BEÑAT MUGURUZA ASEGINOLAZA
- 141 Lingüística Histórica: estado actual
LYLE RICHARD CAMPBELL
- 163 Lenguas y sociolingüística en el interior del País Vasco en el siglo XIX:
testimonios del Archivo Zavala
BRUNO CAMUS BERGARECHE, SARA GÓMEZ SEIBANE

- 177 Les verbes psychologiques du basque : typologie et diachronie
DENIS CREISSELS, CÉLINE MOUNOLE
- 195 Testu-generoaren irudikapena eta erabilera ahozkoaren
didaktikan
LEIRE DIAZ DE GEREÑU LASAGA, ITZIAR IDIAZABAL GORROTXATEGI, LUIS MARI
LARRINGAN ARANZABAL
- 209 Zentsura-ikasketak gaur egun: aplikazioa euskal literaturan
AMAIA ELIZALDE ESTENAGA
- 223 Azentuazioaren eremu sintaktikoak mugatzen
ARANTZAZU ELORDIETA
- 237 Sintaktikoki etiketatutako euskarazko corpus historikoa
eraikitzen
AINARA ESTARRONA, IZASKUN ETXEBERRIA, RICARDO ETXEPARE, MANUEL
PADILLA-MOYANO, ANDER SORALUZE
- 253 Ahozkotasanaren didaktika ikuspegi dialektikotik abiatuta
AINHOA EZEIZA, JAVIER ENCINA
- 267 Ahozko euskararen erabilera eskolan: gako zenbait irakasleen prestakuntzarako
INES M. GARCIA-AZKOAGA, OLATZ BENGOETXEA, JOSUNE ZABALA
- 283 El corónimo navarro *Salazar / Zaraitzu*: origen y desarrollo de su doble
denominación
ROBERTO GONZÁLEZ DE VIÑASPRE
- 295 *Fontes Linguae Vasconum*: orígenes y documentos para una Historia
del Euskara
JOAQUÍN GORROCHATAGUI
- 315 Euskal literatura itzuliaren historiografia bateraturantz
MIREN IBARLUZEA SANTISTEBAN
- 329 Basque among the world's languages: a typological approach
IVÁN IGARTUA
- 351 Familias vascohablantes: propuesta de definición desde la socialización
lingüística
PAULA KASARES
- 363 Formation linguistique de basque aux enseignants, pour un enseignement
bilingue à parité horaire au Pays Basque Nord
BEÑAT LASCANO
- 375 Eñaut Etxamendiren obra narratiboaren ekarpena euskal poetika erruralari
ITZIAR MADINA
- 391 Erdaretarako literatur itzulpena: zeharkako eta zuzeneko itzulpenaren arteko
muga lausoa
ELIZABETE MANTEROLA AGIRREZABALAGA

- 405 Ahozko euskararen irakaskuntzarako irakasleen prestakuntza: berrikuntza didaktikoa eta soziala?
IBON MANTEROLA
- 421 Enkarterriko PI-(h)aran/(h)uri motako euskal toponimoak
MIKEL MARTÍNEZ ARETA
- 437 Diachronical hypotheses accounting for synchronic variation: the case of the Basque particle *ote*
SERGIO MONFORTE
- 453 Jardueraren azterketa irakasleak prestatzeko bide: debatearen ikas-irakaskuntzaren adibidea
AROA MURCIANO EIZAGUIRRE, ARANTZA OZAETA ELORTZA
- 467 Hausnarketa zenbait euskal literatura-ikerketez
MARI JOSE OLAZIREGI
- 485 Ahozko euskara *Kolegioko ikastresna* ikasmaterialean
ARGIA OLÇOMENDY
- 501 Euskararen postposizioak
JAVIER ORMAZABAL
- 517 Hitz-ordenaren eragina zenbait ezaugarri gramatikalen erabilera-maiztasunean
LUIS PASTOR
- 533 Differential D-marking on proper names? A cross-linguistic study
IKER SALABERRI
- 547 Externalization and morphosyntactic parameters in Basque
HISAO TOKIZAKI
- 561 XIX. mendeko Debagoieneko testuez zenbait argitasun: egiletasuna eta iturriak
OXEL URIBE-ETXEBARRIA
- 579 Euskarazko perpausik gabeko azpikonparazioak
LAURA VELA-PLO
- 595 Latinaren aurreko osagai indoeuroparra Euskal Herriko toponimian: bukaeran -(iz)amo duten leku-izenak
LUIS MARI ZALDUA

Izenburua/Título:

Fontes Linguae Vasconum 50 urte. Ekarpen berriak euskararen ikerketari/Nuevas aportaciones al estudio de la lengua vasca

© Argitaratzaileak/Editores:

Ekaitz Santazilia, Dorota Krajewska, Eneko Zuloaga, Borja Ariztimuño

© Egileak/Autores:

Itziar Aduriz, Jose Mari Arriola, Luzia Alberro, K. Josu Bijuesca, Estibaliz Amorrortu, Ane Ortega, Jone Goirigolzarri, Alexander Artzelus Muxika, Mikel Ayerbe Sudupe, Goio Bañales, Mikel Gorrotxategi, Iñigo Beitia, Garbiñe Bereziartua Etxeberria, Beñat Muguruza Aseginolaza, Lyle Richard Campbell, Bruno Camus Bergareche, Sara Gómez Seibane, Denis Creissels, Céline Mounole, Leire Diaz de Gereñu Lasaga, Itziar Idiazabal Gorrotxategi, Luis Mari Larringan Aranzabal, Amaia Elizalde Estenaga, Arantzazu Elordieta, Ainara Estarrona, Izaskun Etxeberria, Ricardo Etxepare, Manuel Padilla-Moyano, Ander Soraluze, Ainhoa Ezeiza, Javier Encina, Ines M. Garcia-Azkoaga, Olatz Bengoetxea, Josune Zabala, Roberto González de Viñaspre, Joaquín Gorrochategui, Miren Ibarluzea Santisteban, Iván Igartua, Paula Kasares, Beñat Lascano, Itziar Madina, Elizabete Manterola Agirrezabalaga, Ibon Manterola, Mikel Martínez Areta, Sergio Monforte, Aroa Murciano Eizaguirre, Arantza Ozaeta Elortza, Mari Jose Olaziregi, Argia Olçomendy, Javier Ormazabal, Luis Pastor, Iker Salaberri, Hisao Tokizaki, Oxel Uribe-Etxebarria, Laura Vela-Plo, Luis Mari Zaldua

© Argitaratzailea/Edita:

Nafarroako Gobernua/Gobierno de Navarra

Kultura eta Kirol Departamentua/Departamento de Cultura y Deporte

Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusia/Dirección General de Cultura-Institución Príncipe de Viana

Lanak adituek berrikusi dituzte, itsu bikoitzeko sistemaren bidez/Los trabajos han sido revisados por pares doble ciego.

Diseinua eta maketazioa/Diseño y maquetación:

Kö estudio

Imprimaketa/Impresión:

Linegrafic

ISBN: 978-84-235-3561-3

LG/DL: NA 1438-2020

Sustapena eta banaketa/Promoción y distribución:

Nafarroako Gobernuaren Argitalpen Funtsa/Fondo de Publicaciones del Gobierno de Navarra

Navas de Tolosa, 21

31002 Iruña/Pamplona

Tel.: 848 427 121

fondo.publicaciones@navarra.es

<https://publicaciones.navarra.es>

Fontes Linguae Vasconum 50 urte.

2019an 50 urte egin zituen Nafarroako Gobernuaren Vianako Printzea Erakundeak argitaratzen duen *Fontes Linguae Vasconum: studia et documenta* euskal hizkuntzalaritzako aldizkariak.

Horren gorazarre, liburu honek gaur egungo euskal hizkuntzalaritza- eta literatura-ikerketan zertan den erakutsi nahi du. Eskarmentu handiko ikertzaileek eta belaunaldi berriek bat egin dute argitalpen honetan, besteak beste, dialektologia, hizkuntzaren didaktika, filologia, gramatika teorikoa, hizkuntz tipologia, hizkuntzalaritza historikoa, itzulpengintza, literatura, onomastika eta soziolinguistika hizpide dituztela.

La revista de lingüística vasca *Fontes Linguae Vasconum: studia et documenta*, publicada por la Institución Príncipe de Viana del Gobierno de Navarra, cumplió 50 años en 2019.

En homenaje de la efemérides, este libro pretende dar cuenta del estado actual de la investigación en lingüística y literatura vascas. Investigadores de gran trayectoria y nuevas generaciones se reúnen en esta publicación para tratar, entre otros temas, sobre dialectología, didáctica de la lengua, filología, gramática teórica, tipología lingüística, lingüística histórica, traducción, literatura, onomástica y sociolingüística.

ISBN: 978-84-235-3561-3



9 788423 535613